


ADINEKOAK ZAINZKEO SISTEMA



ONEKA



EUSKAL HERRIKO EMAKUME
PENSIONISTEN PLATAFORMA



SARRERA

Zainketekin lotutako erronkak, gure gizartearen bilakaera demografikoaren aurrean planteatzen direnak:

- Gure gizartearen laurdena osatzen duen %65 urtetik gorako kopurura hurbiltzen ari gara, eta bizi-iraupena gero eta handiagoa da.
- Horrek esan nahi du handitu egiten direla adinekoen bizitza duina izateko berariaz kualifikatutako arretak, nahiz eta horietako askotan mendetasun-maila handia izan.

Aldi berean, gizartea jabetzen ari da gure bizitzako azken fasean artatuak izatea eskubide subjektibo eta unibertuala dela eta, eskubide hori betetzea, kasuan kasuko gobernuei dagokiela. Ezin da arreta asistentzialista, erabat feminizatua eta familiarengan oinarritua, luzatu. Argi dago emakumea etxetik kanpo eta gizonaren maila berean lan-munduaren parte den heinean,

Zaintzak botere politikoek hartu beharko dituztela eta profesionalizatu egin beharko direla. Ibilbide luzeko zainketak “deshumanizatzeko” prozesutzat har daiteke hori?. Gure ustez, gizartea jabetzen bada komunitate gisa eratzen dela zeregin osagarria bete dezake eta bete behar du zainketen esparruan. Horrek gizarte kohesionatuagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzen lagunduko du.

ONEKAK, ZAINZA I eta ZAINZA II bideoetan jasotako zainketen inguruko lanarekin jarraituz, gaiari buruzko hainbat tailer egin ditu 2024-2025 urte hauetan.

Azpiparratu nahi dugu gaur egungo adineko emakumeak zaintzaileak izan garela gure bizitzan zehar, eta aurrerantzean zainduak izatea espero dugu, zahartzaro duina izan dezagun.

NOLA ZEHAZTU DEZAKEGU GURE NAHIA AZKEN BIZI-FASE HORRETARAKO??

Jarraian, hainbat proposamen aurkeztuko ditugu:

ZAINKETAK HONAKO HAU DIRA:
GIZARTE HARREMANAK
LANA
KOSTU BAT SUPOSATZEN DUTE

Nolanahi ere, helburua argi izan behar dugu: erronka nagusia da gaur egungo zainketetan Sistema aldaketa bat egin behar dela, zalantzarik gabe. ONEKA, 2025eko martxoan Bilbon egindako tailerrean bide berri hori lantzeko prest agertu da, eta horren inguruko proposamenak azaldu nahi ditugu.

NOLA ZAINDUAK IZAN NAHI DUGU?

Galdera honi erantzuteko, eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera bildu ditugu (BOJ).

Gutako asko, une honetan, gai gara jarduera horiek arazo handirik gabe aurrera eramateko, mendekotasun-maila jakin bat duten gutakoak izan ezik.

Jarduera horiez gain, badira modu autonomoan egin daitezkeen lan instrumentalak (LI). Kasu horietan, mendekotasun txikiena oztopo garrantzitsua suposatzen du autonomia horrentzat.

Aurkeztu dugun zerrenda Nazioarteko Akordioek definitutako edukiekin identifikatzen da, eta hauek izango lirateke:

BEHARRAK::
MEDIKUNTZA ARLOKOA
FISIKOAK
KULTURALAK
EKONOMIKOAK
DESIO PERTSONALEN ZAINKETAK

Gure Zaintzen inguruan egiten dugun beste galdera bat honako hau da:

NON ZAINDUK IZAN NAHI DUGU?

Zaintza Eskubide Unibertsala eta Subjektiboa da, eta, beraz, ez dugu onartzen pribatizazioa, eta are gutxiago negozio bihurtzea, ez behintzat bere unibertsaltasuna betetzen dela bermatzen ez bada.

Hauek dira **gaur egungo aukerak**:

- Etxean bertan (etxean) laguntza-euskarriarekin
- Etxebizitza Kooperatiboan
- Egoitzan
- Eguneko Zentroan
- Ospitale Geriatrikoan

ONEKAREN ustez, lehentasuna, zalantzarik gabe, norberaren Etxebizitzaren aukera da, baldin eta beharrezko laguntza baldin bada eta laguntza hori Udalak berak ematen eta kudeatzen badu, bai eta zaindutako pertsonaren jarraipena ere.

Lehen erabakia aukeratzen badugu, kontuan izan beharko dugu diagnostikoa, dugun autonomia-mailaren inguruan, eta lehenago azalduta geratu dena. Diagnostiko horretan berebiziko garrantzia izango du Gizarte-laguntzailearen eta Familia-Medikuaren artean harreman garrantzitsua izatea.

ONEKAREN iritziz, herri/ hirietako 65 urtetik gorako pertsonen Udal-errolak aztertu ahal eta egin beharko lirateke, horrela, haien egoera orokorra ezagutuko litzateke, batez ere nahi ez den bakardade-egoerari dagokionez.

Nolanahi ere, ONEKAK gaur egungo Zainketa motari eman behar zaion aldaketa azpimarratu nahi dugu, eta, behin eta berriz, familiarizazioan eta feminizazioan oinarritutako Zainketak gainditu nahi ditugu. Horrekin batera, astean 24 ordu eta zazpi eguneko lanaldiak dakartzan edozein Zaintza desagerrarazi beharko litzateke.

Etxeko Zainketen kasuan, garrantzitsua da horretarako teknologiek eskaintzen dituzten laguntzak kontuan izatea: domotika, irisgarritasuna, telelaguntza...

Aipatu den arren, Hiri/Herrian eta Landa-eremuan nahi ez den bakardadean bizi diren pertsona ugarien egoera azpimarratu behar da (gehiengoa, emakumeak). Zainketa integralen eredu berri bat lortu nahi badugu, garrantzi berezia eman behar zaie bakardadean bizi diren pertsonen inguruan udalerrian lor daitezkeen sozializazio-sareei.

Laguntza ekonomikoei dagokienez, etxean laguntza jasotzen duen pertsona unitate ekonomikotzat hartu behar dela adierazi nahi dugu.

Eguneko Zentroko arreta

Zaintza hori eta etxekoarenak uztartzea irtenbide interesgarria izan daiteke, langile profesionalek tratatutako pertsonaren zaintza integrala kontuan hartzen bada. Prebentzio arloan lorpen handia izan dezake; lehentasuna izango litzateke Mankomunitateak eta, beraz, Erakunde Publikoak kudeatzea.

Etxebizitza Komunitarioko Zainketak

Zaindutako pertsonen mendekotasun mailaren arabera antolatuta daude. Beste izen batzuekin ere ezagutzen dira: Jubilazio Komunitateak, Etxebizitza Kooperatiboak.

Gehienak finantzaketa eta kudeaketa kooperatibokoak dira, eta, beraz, pribatuak. Autonomia ekonomiko garrantzitsua eskatzen dute. ONEKAN, alternatiba hori aztertu dugu, izan ere Danimarka bezalako herrialdeetan orokortuta baitago, azpimarratuz. Lurralde horretan izaera publikoa dauka eta pertsona eta ongizate integralean zentratutako Zainketa osatzen du. Bertan modalitate esperimentatua eta oso eraginkorra da. Gune horietan zaindutako pertsonen oreka bat bizi dute beren intimitaterako eskubidearen eta eguneroko gizarteratzearen artean, barnemailan eta ingurunera zabaltzeko. Era berean, arreta soziosanitarioa profesionalek egiten dute. Hori guztia udalerrriaren ardurapean eta unibertsaltasun printzipioa bermatuz.

Zainketak Etxebizitza Tutoratuetans

Arreta hau pertsona autonomoei edo mendekotasun txikikoei ematea zaie, eta Egoitzaren ordeztu. Etxebizitza eredu honek konpainia eta laguntza eskaintzen ditu. Etxebizitza-laguntzaileek oinarritzako eta eguneroko laguntzak ematen dituzte, baita osasunaren jarraipena eta arreta bermatzen ere.

Honaino, ONEKAren **“Non eta nola zainduak izan nahi dugun”** galderari gehiengoak emandako erantzun nagusia.

Hala ere, badago gutxiengo bat Egoitzaren alde egiten duena, jakinik gaur egungo **Egoitzetan** mendekotasun maila altuak dituzten pertsonen kopurua oso handia dela.

Guretzat ezinbestekoa da Egoitza hauek zenbait baldintza betetzea:

- Norbanakoaren intimitaterako eskubidea, norberaren eta familiarekiko harremanen arloan, lagunak, etab.
- Zailtasuna, gustuak... propioak bete ahal izatea.
- Egoitza herrian/ hirian kokatzea, sarbide errazarekin.
- Erraldoia ez den Egoitza nahi dugu, non burokrasia eta errutina bezalako anonimotasuna nagusitzen diren.

Zainketen kontzeptu berri batean, esan dugun bezala, pertsonak erdigunean egon behar du, beraz, ezin da negozio gisa ulertu. Ez dezagun ahaztu Zainketak pertsona guztiei dagokien eskubidea direla.

Hezkuntzarako eta osasun publikorako eskubidea defendatu badugu, argi dago bizitza duin baterako zainduak izateko eskubidea ezin dela pribatizatu. Hego Euskal Herriko Egoitza gehienei eragiten dien arazoa da, titulartasun publikokoak izanik, kudeaketa esku pribatuetan dagoela eta %16rainoko irabaziak sortzen dituela lan prekarietatearekin eta masifikazioarekin, burokratizazioarekin eta arreta eskasarekin. Mendekotasun aitortuaren kasuetan, dagokion erakundetik jasotzen dira laguntzak, kostuaren %50 inoiz estaltzen ez dutenehunekoetan. Egoitzan, leku baterako egindako eskaerari oniritzia ematen zaionean gertatzen den egoera azpimarratu nahi dugu. Eskaera horri oniritzia ematen bazaio ere, plaza hori **benetan** ez dagoenez, ordeztu egiten da, “zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa” deritzonagatik, nahiko luza dezakeen denbora batez. Iruzurra egiten dela uste dugu, prestazio horrek ez baitu bermatzen plazak dakarren zerbitzua.

Gaur egun Talde inbertitzaileek Egoitzak pilatzen saiatzen dira eta horiek kudeatzeko orduan duten inpunitatea onartezina da. Pandemian zehar, egoiliar, langile eta senideentzat horren ondorioak argi eta garbi dramatikoak izan ziren. Danimarka bezalako herrialdeetan, duela hamarkada batzuk, horrelako Zentroak lege debeatuta daude.

Gure ustez eman beharreko erantzun zuzena, arreta proposamen berriak lortzea izango litzateke, Egoitzen mundu hau deseraiki behar da eta horrelako arreta desinstituzionalizatu. Lehen fase batean, publikoen ratioak indartu beharko lirateke eta langileen lanpostuak duindu. Aldi berean, plaza berriak sortu behar dira espazio alternatiboetan, egoitza publikoak mantenduz eta hobetuz, mendekotasuna duten pertsonen bizitza duina modu integralean

garatu ahal duten leku gisa. Gaur egun, mendekotasun handiko egoerak zaintzeko zentroak daude, bai aldi jakin batean, bai egoera puntual larrietatik irteera berreskuratzeko edo birgaitzeko lekuetan. Gehienak Zentro pribatuak dira. Arreta oso garestia da. Hautabidea lehenbailehen planteatu beharko litzateke, mendekotasun handia dutenen kopurua nabarmen handitzen ari baita.

Hiri batzuetan, mendekotasun larriak, Ospitale Geriatrikoetan artatzen dituzte, gehienak pribatuak. Egoitza-zentroen deribazioak dira.

Mendekotasunari emandako erantzun horiek, ikusten dugun bezala, Zentro pribatuen esku daude, diru publikoaren oso kopuru handiaren truke arreta” kudeatzen” dutenak.

Aldaketa-proposamen gisa, eta nahi ez duten bakardadean bizi diren adinekoen aurrean, ONEKA Europatik datorren **Lagunkoia** proiektuarekin identifikatzen da, Aldundiak kudeatzen duena, eta nahi duen Udalak atxiki ahal izango duena. Herrian, auzoan, mankomunitatean talde motore bat sortzen da, eta espazio horiek ahalik eta hurbilen, bakardadean bizi diren adinekoek beren eguneroko bizitza sozializatu ahal izango dute, eta, aldi berean, jarraipena egiten da eta pertsona jakin horren bizi-beharrei erantzuten zaie.

Orain arte, Labur-labur azaldu dugu Hego Euskal Herriko Adinekoen Zaintzen egungo egoera.

Zaintzen gaiak, oro har, eta bereziki adinekoentzat, etorkizun hurbilari lehen mailako erronka sozio-politiko gisa begiratzen dio, eta horrek gu guztiongan eragina izango du laster. ONEKAN, misio honetarako zaintzaile “predestinatuak” izan diren emakume ugariak gogorarazi

nahi ditugu. Kontzientzia hartzeak eta duela hamarkada batzuetatik hona emakume feministek gizarte askoz aurreratuagoetan egindako borrokek erakusten digute gaur eta hemen konpondu gabe dagoen arazo baten aurrean gaudela. Zaintzak eskubide bat direla barneratzera iritsi gara, eta horrela dago onartuta EAEko Gizarte Zerbitzuen Legean, baina Zaintzak ez dira kolektibo bati ematen zaizkion **zerbitzuen** zerrenda bat betetzera mugatzen. Defendatzen dugun ereduaren arabera, pertsona zaindua erdigunea izan behar du, eta horrek pertsona hori **bere** ongizate integrala errazteko bezainbateko moduko pertsona ezagutzea dakar.

Hemen, zaintzaileak ere protagonismo berria hartzen du. Ez da predestinazio kontua izan behar, ez dago hori adierazten duen generik. Zaintzaileen zerrenda handitu egin behar da eta haien funtzioa oso anitza izango da: medikuaren arreta profesionaletik hasi: erizain/edo, laguntzaileen arretarekin jarraitu, baita horretarako borondatez antolatuta lan egiten duten herritarrak ere.

Zaintzen profesionalizazioa ezinbestekoa da, batez ere mendekotasuna duten pertsonenikiko.

Lan hau ahalegin handia da eta protagonistek, aldi berean, laguntza emozionala, fisikoa, psikologikoa, iraunkorrak eta etengabeko prestakuntza behar dute.

ZAINKETA EREDU BERRI BATEN AURREAN, ZER ERANTZUN GALDERA HONI: “NOLA ZAINDUAK IZAN NAHI DUGU”?

ONEKAko emakumeok gure bizitzako protagonista izaten jarraitu nahi dugu,

eta horretarako zaintzaileen betebeharrak profesional gisa kontuan hartzea eskatzen dugu, arreta pertsonalizatua, ahal den neurrian. Gure funtsezko balioei jarraipena eman diezagukeela, gure eguneroko jardueran eta sozializazioan parte hartu ahal izatea.

Autonomoak garen bitartean, gehienek etxean jarraitzea aukeratzen dugu (prestazioak kontuan hartuta), eta horretarako nahikoa izango litzateke senideen, lagunen, bizilagunen eta abarren laguntza puntuala.

- Berrirori azpimarratu nahi dugu nahi ez den bakardadearen aurrean akonpainamenduaren garrantzia, baina ez dugu “bakardade lagundurik” nahi.
- Argi eta garbi estimatzen dugu bakoitzaren eta bere intimitatearekiko errespetua.
- Zaintzen familiarizazioa gainditu nahi dugu.
- Zaintza berriek gutako bakoitzaren nortasuna ahalbidetzea nahi dugu.
- Gure iritziak eta erabakiak kontuan hartzea eta helburu nagusia betetzea: “pertsona bat bizitza bat”
- Uste dugu funtsezkoa dela prebentzioaren alde lan egitea arlo guztietan, bakoitzaren potentzialtasunak kontuan hartuta.
- Gure ustez, gutxi onartua eta gutako askorentzat oso garrantzitsua den: euskarazko arreta da. Ulertzen dugu pertsona zaintzaile askok ez dutela ezagutzen, baina min ematen digu, ezjakintasunetik ez ohartzea zein gogorra zaigun egoera hori bizitzea.

- Gure parte-hartzea kanpoko inposaketarik gabe aitortu eta onartzea nahi dugu, eta gustura egiten ari garen eta gure eguneroko bizitza behar bezala kudeatzen laguntzen diguten jarduerari jarraipena ematea..

ZAINKETA INGURUKO GALDERA SAKON BAT BERE FINANTZAKETARI BURUZKOA DA: NOLA FINANTZATUKO LITZATEKE ZAINTEKO SISTEMA BERRI BAT?

Europako zenbait estatutan, agintariak sentsibilizatzen dituzte herritarrek adineko pertsonetako ibilbide luzeko Zaintzek dakartzaten oinarriko eskubideen inguruan, eta beren prestazioak bermatzen dituzte, osasunarekin eta hezkuntzarekin egiten duten bezala.

Adineko pertsonen ongizateari dagokionez, batez ere Europako iparraldean Estatuak bere aurrekontuen banaketa antolatzen du eremu politiko-ekonomikoan, eta, aldi berean, kontzientziazio- eta parte-hartze maila bat sortzen du haien banaketan. Estatuak hartzen du oinarriko zerbitzuen eta zaintzen ardura. Azken horiek herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek bermatzen dituzte, hala nola udalerrak, eta pertsona guztien zergei esker lortzen dira mantentzea. Ustelkeriaren aurkako erabateko gaitzespena eta iruzurraren aurkako borroka bere “kultura”ren parte dira.

Europa hegoaldean, berriz, gastu soziala txikiagoa da. Gizarte Babeseko Zerbitzuak eta laguntzak koordinketa-maila handiaren truke jasotako errenta-mailaren arabera banatzen dira.

Zainketei dagokienez, familiak (emakumeak) gazteen eta adinekoen zaintzaz arduratzen dira.

Horrela, emakume zaintzailearen “kultura” betikotu egiten da.

Plangintza orokorra

Hezkuntzaren eta osasunaren kasuan bezala, plan orokor bat egin behar da adinekoen zainketaeskubideak bermatzeko. Plangintza hori ardatz hauen inguruan antolatuko da:

- Gizarte Segurantzako eta Gizarte Babeseko Euskal Sistemaren antolaketa eta garapena
 - Erakundeek (Gobernua, Aldundiak, udalak) beren koordinazioa egokitu beharko dute, eta sortzen diren maila eta kontraesan guztietan desorekak konpondu.
 - Zahartzaroaren inguruko Estatuak duen estrategiaren barruan, osasunaren eta ongizatearen arloetan integratutako ikuspegi batetik lan egingo dute.
- Zerbitzuen erabilerari dagokionez, lurralde-antolaketa egokia eta ekitatiboa proposatuko dute, Zaintzen unibertsalizazioa kontuan hartuta..
 - Etxeko zaintzan, hainbat Zentrotan edo Komunitatean oinarritutako Zaintzak eskainiko dituzte.
 - Behar pertsonalen arabera arreta egokia eskainiko dute, bereziak kontuan hartuta.

- Bakoitzaren zaintzarako planak garatuko dituzte.
- Komunitate-eredua garatu eta sakonduko dute, batez ere prebentzio-ikuspegiarekin eta Zaintza pertsonalizatua kontuan hartuta.
- Baliabideak optimizatuko dituzte. Baliabideak beharretara egokituko dira eta eraginkortasuna eta emaitzak hobetuko dira.

Udala.

Hiriaren/ udalerriaren plangintza

- Hiri/ udalerri mailan hiru urrats zehaztu behar dira Zaintzen antolaketan.
 - Arreta egokia eskaintzea (pertsonala, unibertsala, doakoa)
 - Lurralde-antolaketa aurrera eramatea (beharrak / azpiegiturak / baliabideak / neurriak / denbora).
 - Informazioa eta sarbidea erraztea (zaintza-proposamenak ezagutzea, eskaera sinplifikatzea, eskaintza anitza eskaintzea eta zaintzaren beharrak asetzea.

Zaintzetan aritzen diren Zentroei dagokienez, Etxeko Zaintzan bezala, udalek ikuskatu behar dituzte.

Udalek eskumen eta finantzaketa egoki eta handiagoa izan beharko dute, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak baitira. Herriko/ hiriko Zaintza Sareak tresna baliotsuak dira Zaintzen Sistema eskuragarri egiteko.

Zainketa-sareak eratu beharko dira baliabide formal eta informalaren arteko koordinazioa antolatzeko, bai eta ikuspegi komunitarioarekin lan egiteko ere, egungo Sistemaren joera indibidualista eraldatzeko.

Azpiarratu nahi dugu kalitate handiko zainketetan inbertitzeak, giza eskubideetan tinko oinarrituta badaude, Zainketa Sistemarekiko konfiantza berreskuratzen lagunduko duela. Era berean, Sistema honek aukera eman diezaieke zaintzaile informalei, beste zainketa mota batean lan egiten duten pertsonari, lanaren eta familiaren arteko harremana hobeto uztartzeko.

Prebenitzea erakundearen erantzukizuna da

Egiaztatuta dago, lehen mailako kalitateko arreta batek osasun integralaren arloan egiten duen prebentzioak, pertsonaren funtzionaltasuna luzatu eta mendekotasun-maila kontrolatu dezake, baita oso espezifiko eta garestiak diren arretaren beharra, aurreztu. Esparru horretan sartuko litzateke, halaber, gertuen dauden erakundeak, 65 urtetik gorako pertsonen jarraipena egitea, haien bizi-baldintzen ezagutza: Egoitzaren ezaugarriak, baliabide ekonomikoak, arreta medikoaren maila, elikadura... nolakoak diren jakitea. Datu horiek biltzeko eta datu horien jarraipena egiteko baliabide egokiak aplikatzeko programarik balego, adinekoen narriadura prebenitzea, batez ere emakumeena, bizi-kalitate hobea izango litzateke haienentzat. Denok izango genituzke aukera eta laguntza pertsonalizatu berberak.

Baliabide horien guztien finantzaketa, publikoa izan behar da, eta legeak

ezarri behar ditu, ez asistentzialtasunez, azken horiek unean uneko borondate politikoaren mende baitatoz.

Eskubide unibertsalez ari gara, eta aurrekontu publikoetatik bermatu behar dira.

Udalerri zaintzaileak

Garrantzitsua da zainketa-sistema berri batek erkidegoaren ekarpena barne hartzen duela konturatzea. Bere ezaugarrietako batzuk honako hauek dira: Nortzuk zaintzen dute?, Zer ematen diote zaintzaileari?, Nola eta noni zaintzen da? ... baina sarritan, gai horiek alde batera utzi izan dira.

Zainketa Sistema bat eraikitzeke orduan. Hiru nozio nagusi daude:

1. Zainketak pertsonengan eta pertsonentzako oinarrituta daude

Zaintza Sistemaren subjektua pertsonak gara: Zaintzak eskaintzen dituztenak eta zainketa horiek jasotzen dituztenak, unibertsaltasunaren kontzeptuak bi aldeak besarkatu behar dituelarik. Aldi berean, pertsona horien bizitza zehatzei eragiten die, eta, beraz, Zainketen arreta pertsonalizatu egin behar da.

2. Zainketak hurbiltasunean kokatu behar dira

Zaintza Sistema bat auzotik egituratzen hasi behar da, herrietatik... Pertsona guztien hurbila eta eskuzkoa izan behar du. Gure bizilekua, elikadura, energia eta harreman mota kontuan izan behar ditu. Horretarako, tokiko egiturak sortzeaz gain, beste alderdi orokor batzuekin aberastu behar da.

Kontuan izan eta azpimarratu behar da urteetan zehar komunitatearen eraikuntza erraztu duten espazioak bizirik mantentzeko beharra, hau da, “etxean sentitzea”.

3. Zainketak publikoak eta komunitarioak izan behar dira

Ezaugarri horiek dituen Zaintza Sistema batek bizitza sortzen den espazio guztiak artikulatzeko gai izan beharko luke. Erabakiak norabide horretan hartu beharko lirатеke, eta politika publikoak diseinatu, erakunde, politika, gizarte eta kulturako subjektuekin batera. Erabaki horietan, emakume helduok oso presente egon behar dugu.

Komunitateak berme guztiak behar ditu politika egokietan lan egiteko, eta horiek baliabide eta bitarteko publikoak izan behar dituzte, erantzun kolektiboari eusteko eta bakoitzak bere erantzukizunak har ditzan, bai eta bizi-unitateen eta Administrazio Publikoaren arteko zubiak eraikitzeke ere.

Amaituz:

Zainketetarako eskubidea bermatzeko eta eraiki nahi dugun eredu kolektibo berrian sakontzen jarraitzeko, helburua komunitatea (auzoa, herria, hiria) guztion zaintzaile bihurtzea da.

Urteetan zehar, emakumeak izan gara Zaintzen predestinatuak. Gaur egun, kontzientzia hartzeari, nolabaiteko autonomia ekonomikoari eta feminismotik garatutako ahalduntzeari esker, erantzukizunik handiena Udalerri Zaintzailean kokatu nahi dugu, horrela herritar guztien zaintzarako eskubidea bermatuko da.



Jarri gurekin harremanetan:

oneka.emakumepentsionistak@gmail.com

oneka.gipuzkoa@gmail.com

onekanafarroa@gmail.com

oneka.getxo@gmail.com



**informazio
gehiago:**



ONEKA



**EUSKAL HERRIKO EMAKUME
PENTSIONISTEN PLATAFORMA**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER